

Euskal Herri mailan aniztasun funtzionala duten pertsonen bideratutako hainbat elkarte daude baina, kirol egokitua eskaintzen dutenak bi zehatz mehatz, Haszten eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa, eta gure ingurunean bat ere ez. Beraz, Durangaldeko aniztasun funtzionala duten pertsonen kirolera bideratutako aisia asetu nahi dugu. Horretarako, gure enpresak hainbat kirol baliabide eskainiko ditu. Hau da, ingurunean dagoen hutsunea baliatuz eta egoera aztertuz, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako kirola egiteko aukera ematen dien elkarte bat sortuko dugu.

Gure elkarteak beste batzuegandik bereiziko dituen hainbat balio izango ditu. Alde batetik euskarari ematen diogun garrantzia, eta bestetik pertsona erdigunean jartzea izango dira.

Zerbitzu hau euskarazkoa izango da, geroz eta gazte gehiagok hitz egiten dute euskaraz eta gure herriko hizkuntza hau bultzatu <sup>1</sup>


nahi dugunez baliabide guztiak euskaraz eskainiko ditugu. Eskuineko grafikoan Bizkaia mailan euskaraz hitz egiten duten biztanleria kopurua ageri da. Hala ere, egoera bereziren bat agertzen bada hizkuntza egokituko dugu. Hizkuntza aberats hau hainbat eremutan erabili daitekeela erakutsi nahi dugu eta gure erabiltzaileek beraien ama hizkuntzan komunikatzeko aukera izatea beharrezkoa dela uste dugu. Nahiz eta Euskal

Herrian euskara ofiziala izan errealitatean hainbat zerbitzu publikoetan ez dago euskarazko tratua jasotzeko aukerarik, ondorioz gure hizkuntza ofizial hau teoriarik ez, praktikan ere jarri nahi dugu eta hau bermatu. Euskaraldia bezalako mugimenduek erakutsi dute euskara erabiltzeko prest agertu diren hainbat pertsona daudela publikoki, aurretik erabiltzen ez zuten pertsonekin eta egoeratan. Gure elkartean euskaraz hitz egiteko gune libre bat sortu nahi dugu, nahiz eta batzuek euskaraz hitz ez egin edo euskaraz hitz egiteko lotsa sentitu, aurreiritzi horiek guztiak kanpoan utzi nahi ditugu eta euskaraz hitz egiteko gune seguru bat sortu. Horrez gain, kirol mundua gaztelania asko entzuten den eremua da eta euskara bultzatzeko hainbat plan eta programa sortu dira. Adibidez, [Euskal Herri mailan kirolean euskararen erabilera sustatzeko 2021-2024 plana](#) aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak. Plan honen helburua, kirolaren esparruan, 18 urte bitarteko gazteen euskararen

el gráfico de la semana

bbk behatokia 

Población de 2 o más años, por lengua hablada en casa  
Bizkaia, 1991 - 2021



Fuente: EUSTAT

www.bbk-behatokia.com | semana 02 - 2023

1

<https://www.bbk-behatokia.com/el-grafico-de-la-semana-2023-no2-que-lengua-hablan-en-casa-las-personas-de-bizkaia/>

erabileran eragitea, eremu soziolinguistikoak kontuan hartuta eta horietarako berariazko ekintzak zuzenduz. Horrez gain, kirol profesionaleko hainbat erreferentek euskara bultzatzeko hainbat aldarrikapen egin dituzte, non batzuetan horren ondorioz arazoak izan dituzten. Adibidez, Gaizka Garitanok behin prentsaurreko batean euskaraz erantzun zuen eta horrek prentsaurrekoan izan ziren Almeriako hedabide batzuen keaxak eragin zituen. Horrez gain, beste kirolari batzuek ahal duten guztietan publikoki euskaraz hitz egiteko ahalegina egiten dute ondorengo [bideoan](#) Athletikeko jokalaria desberdinak euskararen garrantziaz hitz egiten agertzen dira. Mariana Cerro Athletikeko jokalaria sare sozialetan “euskara erronka bat dela aldarrikatu du. Ane Azkonak: “ euskara nire bizitzan zehar nire ondoan egon den hizkuntza da eta esaten dugun moduan euskaldunoi berezi egiten gaituena da” dio.

Beste alde batetik, pertsona erdigunean ipiniko dugu, bere gaitasunak kontuan hartutako ekintzak bultzatu eta berariazko beharretara egokituko dugu. Plan individualak egingo ditugu, hau da, baliabide pertsonalizatuak eskaini eta bere autonomia garatuz. Egin nahi duten kirola aukeratzeko aukerak ere emango diogu pertsonari.

Pertsonan Oinarritutako Planifikazioa, pertsonarentzako botere eraginkorra ematen duen eta, bere autodeterminazioa bermatzen duen metodologia da. Eredu honek, aniztasun funtzionala duten pertsonen beraien plan propioak eta etorkizunerako metak sortzean datza, estrategiak barnean sarturik, beraien bizitza pertsonaleko planaren lorpenak betetzeko helburuarekin. Honekin pertsonaren bizi-kalitatea hobetzea lortu nahi da, haien balore eta lehentasunetan oinarriturik. Gainera, pertsonaren duintasuna errespetatuko da, bizi nahi duen etorkizunerako sen positiboak eta posibleak identifikatu eta pertsona horren bizitzan aldaketak sortuz.

Balio garrantzitsu hauetaz gain beste azpi balio batzuk ere izango ditugu gure elkartean:

**TALDE LANA:** talde lana gogoz sustatuko dugu, oso garrantzitsua delako taldean aritzea taldearen sostengua izateko. Talde zaintza ere bermatzen dugu eta taldekide bat arazo baten aurrean balego lagundu ahal izango dugu, agian bere beharrezana gure gain hartuz eta berak beste beharrezan batzuk asetuz. Taldeko elkartasuna ere gure balioetako bat da, beharrezkoa da elkar ulertzea talde lana aurrera eramateko.

**ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISOA:** Langile eta parte-hartzaileen erantzukizuna eta konpromisoa ere oso garrantzitsuak dira. Langileok egin beharreko betebeharrak egin eta formatzen jarraitzea beharrezkoa da egoera desberdin askoren aurrean lan egingo dugulako.